



Añorgako Karmengo jaiei ekiteko prest daude jai batzordeko kideak. **📺 AÑORGAKO JAI BATZORDEA**

Umeentzako eskaintza handitu eta mozorrotzeko gogotsu daude

Asteburuan abiatuko dira Añorgako Karmengo jaiak, eta izen propioa duten zazpi eguneko egitaraua prestatu dute. Kuadrillak, jubilatuek eta umeak izango dira festen hasierako protagonistak.

👉 Inaxio Esnaola Aranzadi

Buruhandi biboteduna prest dago Añorgako Karmengo jaietarako. Kartelean aizkora batekin agertzen bada ere, lasai, maskuria da erabiliko duena festetan. Kortatu taldearen estreinako diskoari keinua egin dio Unai Gaztelumendi marrazkilariak. «Duela urte batzuk, bi buruhandi ageri ziren kartelak izandako arrakastaren ondoren, gure buruhandi ezagunena protagonista bihurtu dugu», azaldu du Nerea Unanue Añorgako jai batzordeko kideak.

Zazpi eguneko egitarauak askorako emango du Añorgan, bihartik hilaren 19ra bitarte. Ohiko jarduerak eta berritasunak uztartu dituzte, herri giroan ospatzeko añorgatarrek estimatzen dituzten jaiak. «Auzotarrekin elkartu gara programazioa hobetzeko, eta pozik gaude osatu dugun jarduera sortarekin», dio Izaskun Elizegi jai batzordeko kideak.

Kartelak ere lotura du nobedadeekin, aurten egun gehiagotan programatu dituztelako erraldoiak eta buruhandiak. Izan ere, umeentzako eskaintza handitu dute, familiek eta guraso elkarteak eskatuta. Horrela, haurrentzako play-back lehiaketa egingo dute lehen aldiz, eta arratsaldeak haientzako jarduerekin betetzen saiatu dira. Bestalde, Añorgako artisauen azoka estreinako sartu dute egitarauan, martxoko Sagardo Egunean haien postuek harrera ona izan zutelako.

Kuadrillek, jubilatuek eta umeek



ohiko egun propioa izango dute. Bihar, oilasko biltzaileak eta Zementonen jaitsiera ez dira faltako. Etzi, berriz, jubilatuek gustuko dituzten jarduerak egingo dituzte. «Gabezia handiena 13 eta 16 urte bitarteko gazteentzako eskaintzarekin dugu, eta horregatik 3x3 saskibaloï txapelketa mantendu dugu», esan du Iurre Marrahi jai batzordeko kideak. Dena dela, aitortu dute hilaren 16ko Orrikiz eguna dela garrantzitsua añaorgatarentzat. «Mozorrotzea derrigorrezkoa da, eta lehen aldiz gaia aldatu dugu; kolore gorria aukeratu dugu. Ikusiko dugu jendearen imajinazioa zenbaterainokoa den», adierazi du Elizegik.

Arkaitz Añaorgako Dantzariak

Mendeurrena bete du Arkaitz Añaorgako Dantzariak taldeak, eta aurtengo jaietan presentzia nabarmena izango dute. «Karmen egunean, hilaren 16an, mendeurrenoko soka dantza egingo dugu, eta hainbat belaunalditako dantzari askok parte hartuko dute. Gainera, ohiko brokel zikloa eskainiko dugu», nabarmendu du Unanuek. Horrekin batera, festei bukaera emateko, hilaren 19an, Añaorga Kultur eta Kirol Elkartearen egunean, dantza taldeak egingo du bandera jaitsiera. «Aurten, Añaorgako bi talde omendu nahi ditugu. Txupinazioa Añaorgako udalekuen taldeak botako du, hamar urte bete dituztelako. Bandera jaitsieraz, berriz, Arkaitz taldea arduratuko da», azaldu du Marrahi. ●

LARUNBATA 11

08:00

Oilasko biltzaileak, auzoan zehar.

11:30

Arkaitz dantza taldearen erakusketa, Museum Cemento Rezolan.

12:00

Paella prestaketa.

13:30

Oilasko biltzaileei ongietorria.

14:00

Suak itzali.

16:00

Bingoa eta mus txapelketa.

16:45

Frontoiaren garbiketa.

17:30

Pilota goxoaren finala.

Jarraian, Frontenis Txapelketaren finala.

Ondoren, kuadrillen argazkia, plazan.

19:00

Zementonen jaitsiera. Udalekuek 10 urte!

19:05

Zutik elektrotxaranga.

22:30

Play-back lehiaketa, Gaztetxe kanpoan.

00:00

Kontzertuak: Albina eta Divina eta Habemus Queer.

IGANDEA 12

10:00

Jolas Etxea txapelketako finalak.

11:00

Hildako bazkideen oroimeneko meza.

11:45

Gure Kabia abesbatzaren emanaldia, elizan.

13:00

80 eta 85 urteko bazkideei omenaldia.

Eskularen erakusketa, frontoian.

14:00

Jubilatuaren adiskidetasun bazkaria, Jolas Etxean.

17:30

Umeen dantza emanaldia.

18:30

Erraldoiak eta buruhandiak.

19:30

Haur eta helduentzako jolasak.

KARMENGO JAI
ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU
GORA AÑORGA!!
zenta
MUCHO MÁS QUE UNA ORTOPEDIA
ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

ASTEAZKENA 15

10:00

Umeentzako jokoak eta puzgarriak.

16:30

Ginkana.

18:00

Tavole, Zirko Txosko konpainiaren ikuskizuna.

19:00

Erraldoiak eta buruhandiak.

19:30

Sardina jatea.

22:00

Festibala.

OSTEGUNA 16

11:00

Meza nagusia.

13:00

Mendeurreneko soka dantza.

17:30

Arkaitz Añorgako Dantzarien emanaldia: brokel zikloa.

19:00

Iraunkorrak txaranga.

21:30

Bertsotaria: Joanes Illarregi eta Xabat Illarregi.

OSTIRALA 17

18:00

Haurren mozorro festa.

18:30

Erraldoiak eta buruhandiak.

19:00

Gabezin taldearekin erromeria.

19:30

Zezensuzkoaren entzierroa, Aldageletatik.

20:00

Haurren mozorro festa.

21:30

Orikiz mozorro festa: kolore gorria.

Ondoren, Gabezin taldearekin erromeria.

23:30

Kontzertuak gaztetxean: Aramu eta Mikosis.

LARUNBATA 18

07:00

Muxu plakaje herrikoa, futbol zelaian.

11:30

Tiroz karabina txapelketa.

12:00

Bakailao lehiaketa eta sagardo dastaketa.

17:00

3x3 Saski Txapelketa, Amassorrainen.

17:30

Umeen playback lehiaketa, futbol zelaian.

23:00

Kontzertuak: Asgarth eta Oilar Beltzak.

03:00

Zurrumbilo Fest.

IGANDEA 19

10:00

Erraldioen eta buruhandien diana Añorga Txikira.

14:30

Elkarteen arteko bazkaria.

17:00

Añorgako artisauen azoka.

18:00

Haurreskolari: TioTeronen Semeak.

19:30

Mutxikoak.

21:00

Bandera jaitsera: Arkaitz dantza taldeak 100 urte.

